

Nafarroa

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1995eko urtarrilaren 27a / V. urtea / 163. zenbakia

31 Euskal Herrira

Donostia eta Iruñea bitarteko ibilbidea 40 urtez egin zuen Plazaola trenaren azken lokomotora berreskuratzeko taldea osatu da Andoainen (Gipuzkoa), eta Nafarroako hainbat herrirekin hasi ditu jada harremanak, elkarlanean aritzeko. Espainiako Cubillos del Sil (Leon) herrixkako geltokian dago, erretiraturik, 31 zenbakia daraman makina zaharra, eta hona ekarri nahi dute, inguruko historiaren zati polita delako. Bitartean, Nafarroan Plazaola Kontsorzio Turistikoak emanak ditu lehen urratsak, eta Madrilgo FITUR turismo ferian present dago egunotan.



31 lokomotora Leonen lanean aritu zen garaian.

Oroimen izoztua

Zinematografoaren mendeurrena ospatzen hasi direnean urteetan zehar nire burmuinetan gorde ditudan irudiek mugimendua galdu dutela ohartu naiz. Gaztetan guztiz kontrakoa gertatzen zitzaidan, irudien abiadurak beldurtu eta aldi berean liluratu egiten ninduen. Beti aurrerantz joaten zen pelikula, lurralde ezezagunetarantz. Nire barnean zerbait hondatu baitzuten, orain fotograma batzuk besterik ez zaizkit geratzen eta kostata pasatzen naiz batetik beste batera, lehen ez bezala beti atzera eta zuri beltzean. Oroimena izozturik daukat, fil-

meak ere zine aretoetako sarreretan jartzen dituzten argazki horietako batzuk bilakatu dira, pertsonaiak geldirik daude eta lehenbizikoz erreparatu dut betidanik gustatu zaizkidan aktore batzuen aurpegien detailetan. Ez da gauza bera gertatzen, ordea, nire buruarengan 'pentsatzen' dudanean, nire iragan hurbila aztertzen saiatzen naizenean. Sonbrerua eta gabbardina luze bat daramatzen gizon baten bizkarraren besterik ez dut ikusten. Zigarro bat erretzen ari da —ari naiz— taberna baten aurrean, sartzen ausartuko ez balitz —banintz— bezala. Beste irudi batzuk ikusi nahi

Metropoli forala

FELIPE RIUS



izan ditut, haurtzaroko une zoriontsuak edo lehenengo amodioaren emozio nahasiak gogoratu. Alferrik. Tabernaren aurrean zigarro bat erretzen ari den —naizen— gizon sonbreroduna da gordetzen dudana irudi bakarra eta ez dakit ni ote naizen. Scanner-az irudiaren barnekaldera iristen saiatu naiz —beste egun batean kontatuko dizuet nola erabili behar den scanner-a gure irudimenean baino existitzen ez den pertsonaia baten pentsamenduan sartzeko—. Eraikin altuak, larri kolore guztiak, musika diferenteak, usainak, emakume lirainak, liburutegi luzeak eta

filme zaharretako fotogramak nahasirik agertu dira gizon sonbrerodunaren ametsen. Momentu batean dena leher-tzera zihola zirudien, konputadorak ezin zuen ametsaren informazio guztia prozesatu eta pantaila itzali egin da. Botoi guztiak sakatu ditut; azkenean herriska bat azaldu da pantailan —sonbrerodunaren arrastorik ez— eta gaztetxo bat autoestop egiten ari da errepi-dean. Lasai hartu dut arnasa, nire oroimenean dagoen gizon sonbreroduna beste bat da. Orduan, non daude niri dagozkidan irudiak? Teknikoari deitu behar diot.

ERAKUSKETAK



Pablo Uranga artistaren erakusketa zabalik dago Lizarrako Gustavo de Maeztu Museoan. Ikusteko ordutegia goiz eta arratsaldekoa eta otsailaren 5a arte iraunen du.

'Sukaldeko artea' izenburuko erakusketa ikusgai dago Iruñeko Jai-Alai jatetxean. Bertan, Luis Araujo, Juan Zia, Santiago Zia, Pilar Garcia Escribano, Arturo Garcia, Isidro Lopez Murias, Rafael Ubani, Ines Zudaire eta Javier Viscarret artista naparren margoak ikus daitezke, guztiak sukaldaritzarekin zerikusia dutenak.

ZINEMA



'Tiburoneros' izenburuko pelikula eskainiko dute heldu den ostegunean, otsailak 2, Iruñeko Olite zineman. Nafar Ateneoak Zinema Mexikarrari buruz antolatatu duten zikloaren barruan, arratsaldeko 8.00etan hasiko da. Sarrerak 350 pezetan salduko dituzte, Ateneoko bazkideentzat dohainik izango delarik.

'Tan lejos, tan cerca' Win Wenders zinemagile alemaniarren pelikula eskainiko dute heldu den asteartean, urtarrilak 31, Iruñeko Olite zineman. Cine Club Lux-ek antolatutako zikloaren barruan, arratsaldeko 8.00etan hasiko da. Sarrerak 350 pezetan salduko dituzte.

BESTELAKOAK



'Balerdi-Balerdi', 'Morau' eta 'Xabier Montoia' musikarien kontzertua izanen da bihar larunbata, urtarrilak 28, Erratzun. Xorroxin Irratiak antolatuta, Etxeleberteko Txokoan joko dute, gaueko 11.00etatik aurrera.

Nafarroako AEK-k gaur egingo duen zozketan ez dira sartuko 18.480 zenbakitik 18.498 zenbakira eta 18.819 zenbakia dituzten boletoak, desagertu egin baitira. Boleto saridunaren jabeak hamar eguneko epea izango du saria jasotzeko. Sariduna agertuko ez balitz, otsailaren 8an beste zozketa bat egingo litzateke notario aurrean.

Malabare ikastaroa antolatu du AEKk datozen asteetarako, Arrosadia Euskaltegian. Parte hartu nahi dutenek 24 34 66 telefonora dei dezakete. Era berean, ikasturteko bigarren ikastaroa otsailaren 13an hasiko dela jakinarazi du Euskaltegiak, apuntatu nahi duenarentzat, ordu guztiak eta zortzi urratsetako klaseak daudelarik. Aurten, gainera, 'Alfabetatze eta Mintza-praktika' taldeak ere izanen dira.

NAFAR KRONIKA

ALBERTO BARANDIARAN

Utopia negozio bihurtuta

Erreniega hasiera berririk ez da izan. Luze gabe Nafarroako hogeita hamar bat tontorretan haize errotak ikusiko ditugu. Energia berria, berritzailea, kutsadurarik gabea..., espero genuena. Harrigarria da, hala ere, zer-nolako abiada

bertsioa eta 100 megawatt ekoizteko asmoa. 200 haize-errota inguru. Zenbait herrian —Leitza, kasu—, oniritzia eman zaio proiektuari, nahiz eta dudak ere badiren. «Ohiturik gaude mendia garbi ikusten», azaldu du bertako alkateak, «eta orain ohitu

daude, ohizko bidetik baztertu egin beharko dutelako, buruz buru joko ez badituzte, eta gauzak azterketa serioerik gabe egiten direla azpimarratu dute.

Bitxia behintzat bada asmoa. Oraindik utopia baino ez dena, negozio bihurtuta.



bizia hartu duen Nafarroako egitasmoak. Mundu zaballean oso leku konkretu eta bakan batzuetan baino paratu ez badira ere, Nafarroak izango du, Energia Hidroelectrica de Navarra (EHN) enpresak duen aurrikuspina betez gero, Europako haize parke txukunenetakoa. 16.000 milioi pezetako in-

egin beharko errota erraldoi hauekin». Inguruko beste herri batzuk ere aztertu ditu EHNk, eta enpresak luze gabe jakinaraziko ditu emaitzak.

Ekologistek euren dudak azaldu dituzte dagoeneko. «Zertarako hainbeste eta hainbeste tokitan?». Hetgazi migratzaileei kalte handiak eragingo dizkietelakoan

Izan ere, energia sobera dago oraindik munduan, energia garestia, eta hori akitzen ez den bitartean —kalkula daiteke ehun urterako ikatza eta 50 urterako gasa eta petrolio dagoela munduan— ez zaie energia berritzaileei bultzada emango. Gurean hasi dira. Heldu zaigun paisaia berriarekin ohitu beharko.

ASTEKO PERTSONAIK



Miguel Sanz
Politikaria

Azken asteetako gertakarien ostean jakina zen Miguel Sanz Gobernu lehendakariordea izanen zela UPNko zerrendaburu hurrengo hauteskundeetarako, Juan-Cruz Alliren ordeaz. Eta larunbatean, azken bozketan, horrela izan zen, Korellakoak 134 botu lortu baitzituen, eta Allik, berriz, 47 besterik ez. Pozik agertu zen Miguel Sanz, eta «integrazio» mezua zabaldu zuen, alderdi barruko gatazkak aldentzeko. Bera zerrendaburu izanda, Allik baduela lekua bere taldean azpimarratu zuen Sanzek, eta bertan izango dela espero duela. Istilu ugari izan dira egun hauetan UPN barruan baina azkenean alderdi buruek irabazi dut, alde handiarekin gainera.



Cristina Narbona
Ingurugiro Idazkaria

Itoizko urtegiaren asuntua argitu beharrean nahasten ari da gero eta gehiago. Aste honetan ere atera dira gauza berriak proiektu honen inguruan, Europako Ingurugiro Batzordeak ziurtatu baitu keza-salaketa publikazioan «filtrazio irregularrak» izan zirela Herrikan Ministerioaren aldetik. Honekin batera, Cristina Narbona Estatuko Ingurugiro Idazkariak berriro piztu du polemika, Club Siglo XXI foruan emandako hitzaldian «Itoizko lanak hasiak badaude ere oraindik ez dago behinbetiko erabakirik» esan baitzuen. Honek Koordinakundeko hasarrea sortu du, MOPTMAren jarrera justifikatu ezina dela azaldu ostean hasitako lanen kontra zerbait egiten dutela azaldu zutelarik.

AHAZTU GABE!

ANTZERKIA



Iruñeko udaleko Hiritar Eragintza Arloak antolatuta eta Nafarroako Antzerki Eskolaren gestioarekin, haurrentzako antzerki obra ezberdin plazaratuko dituzte Nafarroako zazpi taldek Iruñean. Emanaldi guztiak Antzerki Eskolaren aretoan izango dira, igande goizetan, eta sarrerak 250 pezetan salduko dituzte. Azken hilabeteetako zikloek izan duten arrakasta ikusi eta gero, Udalak haur antzerkiarekin segitzea erabaki du, eta eskainiko dituzten obren artean ez direla estreñoak izanen azpimarratu zuten. Trokolo taldeak emanen dio hasiera zikloari, igande honetan, 'Ali Baba' obrarekin. Hurrengo igandean, otsailaren 5ean, 'Printze zorionsua' izeneko lana taularatu du TEN Pinpimpinpauxa taldeak. Retablo de Figurillas taldeak 'Esmeraldo y Esmeraldita', Iruña Pequeño Teatro taldearen 'Bazter utzitako panpin baten historia' eta TEN Pinpimpinpauxak aurkeztutako 'La flor del lobo' izanen dira otsailean taularatu direnak. Martxoan, berriz, 'Non dago Ortzadarra?' Txirrista taldearen lana, 'Leyendas de nuestra tierra' Sambhu Teatro taldeak plazaratua, 'Cineman' Scaramouche taldearen lana eta 'Printze txikia' Sambhu Teatroen obra eskainiko dituzte.

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, asteleheneetik ostiralera, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etati 22.00etara... 'Karakola segi hola' gazteendako saioa.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Asteazken zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.

KARRAPE IRRATIA FM 107.8

Asteazken zehar, 12.20etatik 12.35etara 'Gauza guztien gainetik' edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak...

HERRIZ BERRI



Sunbilla

Lizarra

Hipermerkatuak geldirik oraindik

IRUNEA

Nafarroako Gobernuak de-
egin dio Eroski Elkarte Kooperati-
bari, lehenbailehen konpon di-
tzan Lizarran paratu nahi duen
hipermerkatuaren urbanizazioa-
ren inguruan dauden zenbait irre-
gulartasun. Hiru hilabeteko e-
pean horrela egin ezean, gerta li-
teke baimena kentzea. Gogora-
tuko denez, aspaldikoa da Liza-
rran hipermerkatua eraikitzeko
Eroski eta Sabeco enpresek du-
ten lehia, baina biek hasierako
urratsetan interes handia erakutsi
baldin badute ere, ez dituzte orai-
ndik baimen guztiak legalki iza-
teko behar diren gestioak egin.

Eroski enpresari joan den
maiatzaren 30ean ohartarazi zion
Nafarroako Gobernuak aipatu
irregulartasunak zuzentzeko.
Oncinada izeneko dermioaren
inguruan eraiki nahi den hiper-
merkatuak hainbat akats zituen
—urbanistikoak batez ere—, eta
1994ko maiatzaren 30ean Nafa-
rroako Gobernuak behin-behine-
ko oneritzia eman zion
proiektuari, ondoren akatsak
konpontzeko. Hori ez du egin
oraindik enpresak, eta gobernua
zain dago udalez gaindiko egi-
tismo honi behin-betiko onse-
pena emateko. Bestalde, Sabeco
enpresak ere, hipermerkatua
eraikitzeko Lizarrako udalaren
eta Nafarroako Gobernuaren
baimenak izan arren, ez du orain-
dik eskatu lanak hasteko baimena,
eta, beraz, bi proiektuak gel-
dirik daude oraindik.

Altsasu

300 etxebizitza inguru eraikiko dira

IRUNEA

Herriko hirigintza ordena-
mendu berrirako egitasmoa
ikusgai dago udaletxean, nahi
den alegazio eta galdera guztiak
egin ahal izateko. Horren ondo-
rioz, Arkangoa, Larresal, Lezal-
de eta Zelandiko dermioetan 300
etxebizitza inguru eraikiko dira,
eta Zangitun industrialde berria
izango da. Inguru hauetan den-
sitate txikiko etxeak eraikiko di-
ra, eta aprobetxatu egin nahi dira
horretarako dagoeneko eginak
dauden azpiegiturak.

Aldaketa guztiak ikusgai
daude udaletxean herritar guz-
tiek ikus ditzaten, eta astero hit-
zaldiak ematen ari dira zonalde
horien etorkizunaren inguruan.
Erakusketa publikoaren ondotik,
alegazioei erantzun zaje, eta
ondoren Udalak onartuko du.
Azken erabakia Nafarroako Go-
bernuak hartuko du.



Sunbillak zabalduko du Nafarroako inauteri garaia.

Inauteriak hemen dira

IRUNEA

Arropa zaharra jantzi eta aur-
pegia estali. Mozorrotzeko ga-
raia heldu da, hementxe baititugu
inauteriak. Nafarroan hainbat eta
hainbat herritar hasi dira besta
goiztiar hauek ospatzen. Joan
den astean Leitzaan ospatu eta go-
zatu zituzten inauteriak eta gaur
eta igandea bitartean, berriz,
Sunbillako mozorrotzaileek izan-
go dute aukera. Zubietako joal-
dunak ere, astelehenean abiatuko
dira Iturenara. Baina inauteriak
ez dira Sunbillan edo Iturenen
edo Zubietan geldituko, eta pix-
kanaka-pixkanaka Euskal Herri
osoko hiri eta herrietan izango
dute parada.

Hala ere, nahiz eta inauteriak
edonon ospatu, Ituren eta Zu-
bietakoak dira Nafarroan osperik
gehien dutenatarikoak. Ospe
horren adierazle dira, zalantzarik
gabe, urtero, herri bi hauetara
joaldunen ibilbidea ikustera
hurbiltzen diren bisitari guztiak.
Izan ere, ikuskizun aparta es-
kaintzen dute hauek. Ituren eta
Zubietan egin beharreko guztiak
prestatzen ariko dira egun ahue-
tan, urtero bezala, herri bietako
biztanleak joaldunen bidez el-
kartu ahal izateko. Astelehenean
Zubietakoak joango dira Iture-
nera eta asteartean, berriz, Itu-
rengoak Zubietara. Joareen za-
rata, beraz, protagonista izango
da egun hauetan bertan.

Aurtengo inauterietako lehe-
nengo parada Ulibeltzak elkar-

tean izango dute sunbildarrek
gaur, goizeko bederatzieta go-
saria izango baita guztientzat.
Eta sabela janari eta edariz bete
ondoren, puxkak biltzera joango
dira baserri herri guztian
barna. Arratsaldean, berriz, he-
rriko haurrak mozorrotuko dira
eta, Ulibeltzak elkartean hauek


ere, txokolate goxoa dastatu eta
dantza egiteko aukera izango
dute. Ilunabarrean Herriko
Etxeko arkupeetan dantzaldia
izango da haur, gazte eta helduen
gozamenerako. Dantzaldia bu-
katuta Ulibeltzak elkartea herri-
ko emakumeen topaleku izango
da bertan egingo baitute afaria.

Gizonezkoak, berriz, emaku-
meen artean afaltzeko gonbiterik
ez dutenez, Bustitz ostatuan el-
kartuko dira.

Bihar, ohetik altxatzea lortzen
duenak Iruribieta ostatuan har-
dezake gosaria. Etxean gelditzen
denak, berriz, ez du lo egiteko
aukera gehiegirik izango, herri-
ko kaleetan barna ibiliko baitira
eskean gosalduek ondoren. Egue-
rdian Fonda ostatuan bazkari
ederra izango da eta arratsalde-
ko 7etatik aurrera, maskara-
dantza Udaletxeko arkupeetan.
Herriko ostatuan afaldu ondo-
ren, elkartean dantzaldia izango
da trikitilariekin gauerditik au-
rrera.

Igandean agurtuko dituzte
inauteriak sunbildarrek, baina ez
nolanahi. Goizean, hamaika
t'erdia aldera, karrozen desfilea
izanen da herriko kaleetan barna
eta ondoren, pilotalekuan zerri
eta bildots baten zozketa egingo
dute. Ordu bi t'erdia inguruan
Ulibeltzak elkartea sunbildarren
topaleku izango da berriro ere.
Bertan bazkari goxoa prestatuko
dute herritar guztientzat. Bazkal-
du ondoren, dantzaldia berriro
eta, aurtengo inauterietako az-
kena izango denez, inork ez du
aukera galduko. Dantzaldiak
agurtuko ditu inauteriak.

Neguko besta hauek, beraz,
hemen dira, mozorroa jantzi eta
kaleaz jabetzeko garaia. Besta
goiztiarrak baina motzak dira,
ordea, eta denborarik ez galdu
eta dantzara.



Heldu den astean Ituren eta Zubietaren txanda izanen da.



Iruñeko Hiria xake Torneo itxiko bigarren ihardunaldiko partida, 1994ko abenduaren 28an jokatu.

Jesus De la Villa, 2.490 ELOkoa (Euskal Herria)—Alexander Mozorevitx, 2.575 ELOkoa (Errusia).

1.e4,c5; 2.Zf3,e6; 3.d4,d4; 4.Zd4,Zc6; 5.Zc3,d6; 6.Ae3,Zf6; 7.Dd2,Ae7; 8.f3, 0-0; 9.0-0,a6; 10.g4,Zd4; 11.Dd4,b5; 12.g5,Zd7; 13.h4,Gb8; 14.Eb1,b4; 15.Ze2,Ab7; 16.h5,a5; 17.g6. Ikus koadroa. Eraso egite-rakoan, txuriak arinagoak izan dira, eta horrek ematen die abantaila. Beltzen zalantza hauxe da: peoia jan, eta posizioa erabat ireki, beren kalterako izan daitekeena, edo beste zerbait saiatu.

17...Af6. Zuhurtasunaren bidea aukeratu dute. Baina hemendik aurrera, peoi bat gutxiagoz aritu behar! 18.f7 xa,Gf7; 19.Dd6,De8; 20.Ah3,Zf8; 21.Zf4,Ag5; 22.Ac1,e5; 23.Zd5,Ac1; 24.Ec1,h6. Presioa leuntzeko, zaldia oso arriskutsua da eta. 25.Ag4,Eh8; 26.Gh2,Gd8; 27.Zc7,Gd6; 28.Ze8,Gd1 xa; 29.Ed1,Ac6; 30.Zd6,Gc7; 31.Gd2,Eg8; 32.b3,Ad7; 33.Zc4,Ag4; 34.g4,Zd7; 35.Ee2,a4; 36.Ef3,Ef8; 37.Gd5,b3; 38.a-b3,Ee7; 39.Gb5. Beltzek dena defendatu zinean, bigarren peoiaren galera jasanez behar dute. 39...Zc5; 40.Gb4,Ze6; 41.Ee3,Ef6; 42.Gb6,Ga7; 43.b4,Ga1; 44.Ed2,Gg1; 45.Ze3,Ee7; 46.c4,Zg5; 47.Ed3,Ga1; 48.Zd5 xa,Ef7; 49.Gb7 xa,Ef8; 50.Gb8 xa,Ef7; 51.Gb7 xa,Ef8; 52.Zc3. Beltzek amore eman zuten. Ateraldian urrunegi joaten utzi zieten txuriei.

Hasteagatik errudun

Lehenengo lagunak etorri zitzaizkidan etxera. Argazki eder baten ostean egongelan ezarri ginen partxis partida pare bat jolasteko asmotan. Bikoteka jolasten genuen: gorriak eta horriak, urdinen eta berdeen aurka. Galtzen zuten haiek, afaria ordainduko zuten, irabazleek hautaturiko egun eta leku zehatz batean. Beraz, hortan hasi ginen arrazoirik gabeko garrasi eta oihi izugarriak boteaz. Lehenengo jokaldietan tentsio handia nabari zen gure artean; gerora pixkanaka-



Oihaneder Indakoetxea

(BARAÑAIN)

dera pastzen zen heinean. Baina partida ez zen krispeta platerak bezain laister isuri.

Egongelan ez zen nahikeria besterik arnasten. Denok genuen gure pistola-zorroan eskua jarririk, txispoleta bertatik ateratzeko prest: mendebaldeko pelikula zaharren antzera.

Etxetik kanpo zegoen giroa, ez zen ezta gutxiago ere jolasten ari ginen sumendi bero haren parekoa. Kanpoko haizea purua zen, harkaitzetik atera berri den mineral jaioberri baten antzera.

Gauza da ez nuela uste horren arriskutsua eta kaltegarria zenik partxisean ari-



pixkanaka gutxituz zihoan. Argi zegoen serio zen zerbait jokoan zegoela eta inork ez zuela hori galtzeko asmorik.

Joko hartan, esperientziadunek irabazteko aukera gehienak zituzten, baina beste bikotea (gu) ez ginen makal jolastan hasi, irabazten baizik. Diotenez gehienetan ongi hasten dena, amaieran galtzeko aukera gehien dituen da. Nork jakin!

Partida aurretik egin genituen krispeta platerkada beteak laster desagertzen zihozan, hare gramoa erlojuaren beste al-

tzea. Ez nuen inoiz uste gauza hain xeble batengatik horren larri aurkituko nintzenik ere; haur batek beste haur bati jolasteko kromoa lapurtu izan balio bezala sentitu nintzen partida osoan zehar, lapurra ni izango banintz bezala: partida hasteagatik errudun.

Gure onerako, telefonoak txirrin egin zuen eta oso berandu zela konturatu. Hor-taz, jokaldia bertan behera utzi behar izan genuen.

Eskerrak!

Ameriketako euskaldunak

Galdera: Ameriketatik idazten ari natzaizu. Ez dakit zer gertatzen zaidan baina euskaldunak ikustean barrengo zerbait mugitzen zait. Askoz ere erakargarriagoak iruditzen zaizkit nire barrideak baino. Nola azal liteke?

Erantzuna: Ene itsasoaz bestaldeko adiskide maitea. Odola, horixe da. Ez da oso teoria zientifikoa, baina ez dago beste azalpenik. Nola azaldu bertzenaz begi beltzeko Hueskako neska horri gertatu zitzaiona? Jamman izeneko turkiarra ikustean, haren ohizko lagunak, joan-etorriak, senarra eta botaz, gorantza doan globo batean bailihoan, zama horiek bistatik kendu zuela, Jamman horrekin elkartzeko. Hor tiramen etniko bat dago. Gu ez gara

berriak mundu honetan. Beste Jamman izan zen Hueskan duela puska bat, antza. Horrelakotsua da zure kasua. Deskodifikatzen ahal ez dugun informazio aunitz dago gure zainetan. Arrazakeria dei dakiok teoria honi. Baliteke. Nola azaldu bertzenaz euskarekin zer ikusirik ez duen pertsona horren jokaera, bere seme-alabak ikastolara bidaltzean? Odola, oihanaren deia, gure alde basati teluriko menperaezin horrek behartzen gaituena. Baliteke Imirizaldukoak izatea, edo Inbuluzketakoak zure zuhaitz genealogikoaren zainak.

Galdera: Afaltzearekin batera liburua bat irakurtzen ari nintzen, *Deportivo Alaves 1921-1993, toda una historia albiazul de mas de 70*

BEHIN-BEHINEKO EUZKO SENDIMENDU KONTSULTA

Elias Beorburu de Berriobehiti Jaun Dotorrea

Gu ez gara berriak mundu honetan, eta deskodifikatzen ahal ez dugun informazio aunitz dago gure zainetan.

años. Halako batean irakurketan erabat murgildurik egonez, esku-muturreko erlojuaren erantsi nuen. Aho zabalik geratu nintzen. Laneko jendearekin komentatu eta aho batez esaten didate hori kontsultatzea dela. Larria al da?

Erantzuna: Zure kasua tipiko-tipikoa da. Berrogeita hamar urteren muga gaintzean, gure organismoan zenbait fenomeno gertatzen dira, ahoberoengan batez ere. Lasai, organismoak berak erregulatzen du horren prozedura, eta puska batera halako ezusteak desagertuko dira zure bizirik. Beste fenomeno arrunt bat izaten da besteak maiseatzeko gogoia. Halakoetan pentsa ezazu Gatsby Handian esaten denaz: 'Norbait maiseatzeko gogoia duzun bakoitzean, ez ahaztu edozeinek ez dituela izan zuk izan dituzun erretzasunak'.

Galdera: Itzultzailea naiz, eta 'Formularios al Juicio verbal del

Automovil' euskeratzen ari naitenez geroztik ez nau loak gauetan hartzen. Zer egin nezake?

Erantzuna: Kontso, nola dabilen aste honetan kulturgintza. Egoera larrian zaude, duda izpirik barik. Baina, espero ez duzun halako egunean eta honelako lekuan zure lana bukatuta izanen da. Dakizunez XVIII. mendean euskara Paradisuko hizkuntza zela esaten zen. Eta Paradisua dagoela sinetsiz gero, ez du lanak ematen beste sinesteak. Euskara ez da Paradisuko mintzo bakarra, hori ere esatekoa da. Eta gogoratu, edertasuna harrapatzeagatik eta eskuratzegatik zikinkeria guztiak eskobatzen dituen pertsonak azkenean galduko duela ederra. Erranak erran, on egin. Aizu, eta jotzen duenak pagatzen duelako horrek beti funtzionatzen al da? Joan den astean, kontsultatik ateratzen...



Sine Nomine taldea Arakil-Uharten iazko maiatzean emaniko kontzertu batean.

Sine Nomine Musika Tailerrak urte bukaera ederra eta bikaina izan du. 1993ko urrian Gironan izan zen Interprete Berrien Espainiako Lehiaketan lehen saria jaso ondoren, Madrilan, Vigon, Valladoliden eta Medina del Campon izan dira kantari. 1990ean sortua, XX. mendeko ahots-lanak jorratzen dituen koru honek konposagile gazteen lan franko estreinatu ditu bere bost urteko ibileran.

XX. mendeko abesbatza

ALBERTO BARANDIARAN / IRUNEA

Euskal Herrian abesbatzak nahi adina, jakina denez, baina gutxi ohiko errepertoriotik ateratzen direnak. Euskal autoreak, jakina, eta Barrokoko eta azken mendeotako lanak ohi dira aukeratuenak. Gutxi saiatzen dira mende honetako lanekin, oso ezagunak ez diren partiturekin. Gutxiago mundu honetan urte batzuk besterik ez badute eramatzen.

Horietako bakan bat da Sine Nomine Iruñeko Musika Tailerra Taldea. Hogeita zortzi urtetik beheko 18 lagunek osatuta, 1990ean hasi zen talde gisa kantatzen, Nafarroako Unibertsitateko urteek pizturiko afizioarekin jarraitzeko xedez elkartu zirenean. Hortik aurrera Errenazimendua —XV eta XVI. mendeak— eta XX. mendeko abesbatza dira erreferentzia bakarrak. «Garai konkretu batean sakonduz gero, koherentzia ematen zaio lanari», azaldu du Cesar Garziarena taldeko kantariak, «jatorrizko izpirituari eusten zaiolako. Oso musika ezberdina kantatzen baldin badituzu, ordea, kontraesanak sortzen dira». Pello Ruiz Huizi taldeko zuzendariak dioenez, garai jakin batekin aritzea mugatzailea izan ezezik, aberasgarria ere bada. «Azkenean helburua da musikagile batek garai jakin batean musika jakin bat zergatik egiten

zuen jakitea, eta gero eta gehiago ezagutzen baduzu, orduan eta aberatsagoa egiten zaizu musika hori».

Hiru garai izan ditu lau urte hauetan taldeak. Lehendabizikoan, batez ere jendeak zituen gustu eta esperientziengatik, bi arlo jorratu ziren bereziki: Berpizkundea, batez ere Espainiako eta arlo profanoan, eta XX. mendea, denetariko eraginak

hartuz. Bigarren garaia lehiaketa batek eragin zuen, Interprete Gazteen Espainiako Lehiaketak, hain zuzen ere. Hori prestatzeko ahotsak landu behar izan zituen taldeak, laguntza instrumentalik gabe, eta XX. mendea jorratu zen bereziki.

Gaur egun hirugarren garaian daudela esan daiteke. Organoak, Jose Luis Etxetxipia organo jolearen partaidetzarekin, prota-

gonismo handia eskuratu du, eta errepertorioa franko aldatu da. Frantziar, Alemaniar eta Ingalaterran sortutako obrak lantzen ditu taldeak, nahiz eta aurrerantzean Espainiakoak ere jorratu nahi dituzten.

Taldeko partaide gehienek badituzte ikasketa musikalak, eta horietako bi —Pello Ruiz zuzendaria eta Jose Luis Etxetxipia organo jolea— musikari profes-

Sariari esker

A. B. / IRUNEA

■ 1993ko urrian Gironan (Katalunia) irabazi zuten Interprete Gazteen Espainiako Lehiaketak ate franko zabaldutako Sine Nomine taldeari, eta horren ondotik —saria Espainia osoan hamar kontzertuak izanik—, soilik iazko urria eta abendua bitarte, Madrilgo Auditorio Nazionalan, Valladoliden eta Vigon (Galizia) abesteko parada izan dute. Bukaera ederra, baina gehiegizkoa. Hori dela eta, apiril bitarte kontzertu gehiago ez dutela emango erabaki dute taldean, lan berriak landu eta jorratzeko.

Kontzertuak izaten dira talde baten kezkarik handienetakoa, eta honetan ez da salbuespena. Hasieratik haiek hartu zuten kontzertuak antolatzeke ardura, baina kezka ez zen falta izan. «Hasieran kezkatu geunden kantatzeko tokiak izango ote-gentuen eta, baina berehala hasi ginen gure lanaz eta gure entsaioez arduratzen. Lan ona eta interesgarria egiten baldin baduzu, lasai konpontzen da dena, berehala deitzen dizutelako». Gironan emandako kontzertuaren ondorekin, segituan heldu dira deiak. Aurten Pragan egingo den lehiaketa batera joateko lanean ari dira dagoeneko.

Bitartean Nafar Ateneoan eta

Iruñeko Jasokunde Elizan —bertan egiten dituzte saioak— izan dute laguntzarik handiena. Kexu dira, ordea, Iruñeko Udalak dirulaguntzak eskuratzeko jarri dizkien trabengatik. «Udalak badu harremana talde guztiak urtean zehar bost kontzertu egiteko, eta horren truke 50.000 pezeta ordaintzen ditu kontzertuko. Guri, ordea, bi eskaintzen dizkigute, eta 40.000 pezeta ordainduta. Lehen urtean lehen urtea zela, bigarren urtean bigarrena zela, eta hirugarrenean... Azkenean hautsi egin dugu hitzarmena, eta esan genien dirua beste talde bati emateko baina, hala ere, sartu digute gure kontuan!».

sionalak dira. Baina, ezer baino lehen, lagun talde bat da Sine Nomine tailerra. Eta demokratikoa, azpimarratu dutenez. «Ez genuen izan nahi ohiko zuzendari eta ohiko talde baten irudia, eta lanak aukeratzekoan, denentzen artean eztabaidatzen dugu». Horrela, bakoitzak aurkezten ditu hurrengo sasoiak kantatu nahi dituen lanak, eta norberak defenditzen ditu. Kontuan harturik taldean bertan badaudela konposagileak, aukera ez ohi da izaten oso zaila. Halaber, kantatzeko tokiak aukeratzekoan denentzen artean hartzen dira erabakiak.

TALDEA Ez da XX.
TONALITATEAREN mendea
BIDEAN —ahots—

musikari dagokionez—, garairik ezagunena, are gutxiago ulertuena. Tonalitatearen eta atonalitatearen arteko eztabaidak markatuta, abangoardismoak nagu-

Ez genuen nahi ohiko taldearen eta ohiko zuzendariaren irudia izatea, eta lanak aukeratzekoan denentzen artean eztabaidatzen dugu».

Gero eta gehiago animatzen ari gara abangoardiarekin, eta lanak sakonki ezagutzen ditugun neurrian, kantatzeko gogorra zirudiena atsegina egiten zaigu».

sitasun osoa izan du azken urteotako produkzioan, eta jendearen gustuaren eta egiten denaren arteko hausturak hor jarraitzen du, ixteke. Eztabaida horretan sartzen ez badira ere, tonalitatearen bidea hartu du taldeak, geroan aldatuko dutela ukatzen ez badute ere. «1910ean egin zen lehen lan dodekafonikoa», azaldu du Pello Ruizek, «eta oraindik burrunbarekin hotsa da guretzat. Hala ere, gero eta gehiago animatzen ari gara, eta lan hauek sakonki ezagutzen ditugun neurrian, entzuteko oso gogorra zirudiena gero eta ulergarriagoa egiten zaigu. Azkenean gustatu egiten zaizu eta».

Honek galdera eta duda franko sortzen ditu kantatu behar denari buruz, baina gero eta gehiago ahalegintzen ari dira gaur egungo lanak, abangoardistak izanik ere, kontzertuetan sartzen. «Askotan, kontzertu baterako deitzen digutenean gauza atseginak abesteko esaten digute, eta euskal lanak kantatzen ditugu, baina gero eta gehiago sartzen ditugu gauza berriak, jendeak ohitura har dezan. Ez badute inoiz entzuten, inoiz ez dute jakingo».

«Betidanik izan naiz Oskorri-zalea»

Jon Salbide

EDURNE EUZONDO / IRUÑEA

Josu Salbide musikari nafarra Oskorri taldeko kide berria da. Oskorri 'Katuen testamentua' ikuskizuna prestatzen ari zenean sartu zen Josu Salbide taldean eta ikuskizun honekin eman ditu bere lehen pausoak ibilbide berrian. Oskorrik hil honen 21ean taularatu zuen 'Katuen testamentua' Iruñeko Anaitasuna kiroldegian eta ikuskizunarekin batera, taldeko kide berria ofizialki aurkeztu zuen Natxo de Felipek Iruñean, egun batzuk lehena-go.

Antzematen zaio Josu Salbideri bere bizitzako gogorik handienetakoa bete duela. Minxoriak taldearekin lau urte jotzen aritu ondoren, azkenean bere arloan punta-puntako taldean sartu da, betidanik mirestutako taldean, hain zuzen ere.

Berak azaldu duenez, Lapurdiko taldea utzi zuen garai berean musikari berria behar zuten Bizkaikoek, eta Natxo de Felipek hots egin zion orduan. Salbidek berehala onartu, berak jotzen dituen instrumentu berberak menperatzen zituenik behar zutela eta. Gainera, amoldatzeko garai ederra izan du 'Katuen testamentuarekin' —Kepa Junkera trikitalaria eta Kukubiltxoko erraldoekin egin duten ikuskizunarekin—, eta orain hasiko duten ohiko girarako erabat egokিতuta egongo dela uste du nafarrak.

EGUNKARIA.— Nola sartu zara Oskorri taldean?
JOSU SALBIDE.— Oskorrira ailegatu baino lehen Iparraldeko Minxoriak taldean jotzen nuen nik. Alboka, txirula, flauta jotzen nituen. Lau urte eman ditut Minxoriak taldearekin baina, azkenean, banatzea erabaki genuen. Garai hartan Oskorri utzi egin behar zuen taldeko kideetariko batek, nik jotzen ditudan musika tresna berberak jotzen zituenak, hain zuzen ere. Natxo de Felipek nire lana ezagutzen zuen eta dei egin zidan, Oskorri taldean sartzea proposatuz. Zalantzarik gabe eta pozaren



Josu Salbide, Oskorrarekin Iruñean.

JOXE LACALLE

pozez baietz erran nion Natxori.

EGUNKARIA.— Oskorrin denbora gutxi badaramazu ere, nolako izan da orain arteko esperientzia?

SALBIDE.— Oso polita eta pozgarria, ni betidanik izan bainaiz Oskorri-zale porrokatua. Taldean sartu nintzenean 'Katuen testamentua' ia prest zegoen eta grabatzea baino ez zen gelditzen. Diskoa grabatu bezain laster ikuskizuna kalera atera genuen eta herriz herri ibili gara 'Katuen testamentua' hainbat lekutan plazaratuz. Hauxe izan da nire lehen lana eta oso berezia izan da, haurrak izan baititugu ikusle batez ere. Baina erran beharra dago oso ikusle talde aparta

«Lau urte eman ditut Minxoriak taldearekin, baina azkenean banatzea erabaki genuen».

osetzen dutela haurrok. Honetaz gain udan ere, 'Katuen testamentua' denboralditxo batez baztertu eta ohizko kontzertuak eskaini ditugu. Aukera izaugarria izan da niretzat taldean sartu ahal izatea eta orain arteko ibilbidea, 'Katuen testamentua' ikuskizunarekin egin dudana hain zuzen ere, oso aberatsa eta polita izan da. Etapa berri bati ekin diot Minxoriak utzi ondoren.

EGUNKARIA.— Oskorri-zalea betidanik izan zarela aipatu duzu. Oso ezberdina al da taldea barrutik ikusita?

SALBIDE.— Egia erran, bai. Oskorri taldeaz nuen irudia erabat aldatu zait. Orain dela urte batzuk ez nuke inolaz ere

sinistuko egunen batean Oskorriko kidea izango nintzela. Gainera, Oskorriren musikaren inguruan halako mistizismoa eraikita nuen eta sinestezinezko ametsa zen niretzat taldeko kidea izatea. Gaur egun, ordea, barruan egonda, gauzak beste era batera ikusten ditut eta uste baino errazagoa da dena. Azken finean, talde barruko dinamika ez da hain ezberdina eta oso gustora nago nire lankide berrieekin.

EGUNKARIA.— Zer moduz konpontzen zara taldeko gainontzeko kideekin?

SALBIDE.— Oso ongi, ez dut inolako arazorik izan taldeko gainontzeko kideekin bat egiteko. Gainera, Oskorrik behar zituen musika tresnak jotzen ditut nik, beraz, erabateko adostasuna lortu dugu. Natxo, Anton, Vicente, guzkiekin oso ongi moldatzen naiz. Oso garrantzitsua izan da niretzat betidanik maite izan dudana talde bateko kidea izatea.

EGUNKARIA.— Zure ustez, zer dela-eta lortu du Oskorrik hainbesteko arrakasta?

SALBIDE.— Oskorriren sustriak betidanik izan dira folk musikarenak baina beste musika tresnen tantak ere gehitu dizkio bere lanari, hau da, txirula, alboka, gaita edo flautaz gain, kitarra elektrikoa ere erabili du Oskorrik, besteak beste, bere musika osatzeko. Nahasketa honen emaitza izan da Oskorriren adierazle den musika. Berean, Euskal Herriko talderik garrantzitsuenetarikoa da, zalantza izpirik gabe.

EGUNKARIA.— 'Katuen testamentua' herriz herri taularatzaz gain, disko berria prestatzeari ekin diozue.
SALBIDE.— Bai. Martxoan inguruan grabatzeko asmoa dugu. Abesti ugari bildu ditugu eta orain diskoa osatuko dutenak aukeratu behar ditugu. Eta ez da lan erraza izango, bi disko berri kaleratzeko materiala badugu eta. Tinbre eta instrumento berriak sartuko ditugu baina hoberena, diska grabatu eta entzutea izango da. Poliki baina zuzen ibili nahi dugu lan berri honekin. Ziurrenik uda bezperan kalean egongo da.

OSKORRIKO MUSIKALARIA



SOSLATA

Lau urte Minxoriak-ekin

Josu Salbide iruindarra da eta musikazale galanta. Alboka, txirula, flauta eta beste hainbeste musika tresna jotzen ditu eta plazarik plaza ibili da bere gaitasuna erakutsiz. Lau urte eman ditu Minxoriak taldean eta gainontzeko kideekin batera Euskal Herri osoan zehar jai guztietako giroa alaitu du. Baina Minxoriak-en ibilbidea portura ailegatu da eta Oskorri izeneko untzi berrian itsasoratu da Josu Salbide orain. Belauntziak zabal-zabalik ditu eta Oskorriren disko berriarekin, itsaso guztiak zeharkatzeko prest agertu da musikari nafarra.

NOSKI JATOR

© Zaldí ERDA

